



EUOPAR BATASUNEAN TXIKIA IZATEAREN ONURAK



EUROPAR BATASUNEAN TXIKIA IZATEAREN ONURAK

AURKIBIDEA

1. Kapitulu	
Autodeterminazio eskubidea EBan	<u>2</u>
2. Kapitulu	
Europar, txikiak izatearen onurak	<u>9</u>
Estatu txikiak EBan	
Gales/Cymru	<u>19</u>
Malta	<u>20</u>
Eslovenia	<u>21</u>
Zipre	<u>22</u>
Letonia	<u>24</u>
Estonia	<u>25</u>
Luxenburgo	<u>26</u>
3. Kapitulu	
Eskoziako kasua	<u>28</u>
Gehigarriak	
1. Independentzia egungo munduan	<u>31</u>
2. Herrien erabakitze eskubidea errealitatea da	<u>33</u>



1) Giza-eskubide eta autodeterminaziorako eskubidea EBn

Orain dela gutxi Schuman Deklarazioaren 50. urteurrena ospatu dugu. Deklarazio horrek lehendabiziko Europako Elkarte sortu zuen, CECA. CECA 1951n jaio zen Europan gudekin bukatzeko asmoz, “Europa ez zen eraiki eta guda egon zen” esan zuen Schuman-ek bere deklarazioan. Ikatza eta altzairua ziren industria militarren ikurra, horregatik zuen komunitate honek hain konnotazio berezia. Geroxeago, 1957ko martxoaren 25ean Erromako Itunak sinatu ziren eta horien bidez Euratom eta Europako Elkarte Ekonomikoa sortu ziren, azken hau dudarik gabe protagonista nagusia izanik. Eratze europarra deritzona guda berri baten susmopean eta kontinentera bake eta iraunkortasuna ekartzeko nahi sutsuaz sortzen da. Sorreran hasiera merkantilistegia izan zuen eta 30 urte behar izan zituen eratze europarrak hazten hasteko. Urrats garrantzitsuak izango dira Akta Bakarraren sinadura 1986an, eta batez ere, Maastrichteko Ituna 1991n, Amsterdam-ekoa 1997an eta Niza-koa 2000n. Hasierako Europako Elkarte Ekonomikoa Europako Elkarte bihurtuko da. Hau, erakunde askoz ere zabalagoa izango da eta sail desberdinak barne hartuko ditu, hala nola: enplegua, giza-kohesioa, garraioak, ingurugiroa, garapenerako lankidetzak, e.a.

Gaur, Europako Batasunak ekialde kontinentaleko 12 estatutara hedatzeko prestatu behar du bere burua. Turkia 13. kandidatua da, baina giza-eskubideekiko eta gatazka kurduarekiko jarrera aldatzen ez duen bitartean ez dugu kontuan hartuko. Hedapen honek Europako Batasunarentzat (EB) erronka bat izateaz gain, inflexio-puntua suposatuko du. Hamabi estatuek 100 milioi biztanle baino gehiago biltzen dituzte eta orain dauden 11 hizkuntzei hamabi hizkuntza “ofizial” gehiago gehituko dizkiete. Ez gara EBko arazo linguistikoari arituko asko hitz egin behar bailitzateke.

Europako Batasuna, sortu zenetik kontinente honetan izan den proiekturik onena dela uste badugu ere, gure aburuz baditu zenbait akats bere egituraketan. Oraindik ere, Europako Batasuna eta Europako Elkarteak ezezagunak dira hiritarrentzat, hala urruntasun sentsazioagatik, nola bere oinarritzko testuei eta instituzio-egiturari buruzko nahasketagatik

Europar instituzioak lau itun desberdinetan (bost, oraindik indarrean ez dagoen Nizakoa kontuan hartzen badugu) eta hiru komunitate (CECA, Euratom eta EEE) bere barne hartzen dituen Batasun batean oinarritzen dira. Eta hiritarrak Europako instituzioekiko sentitzen duen urruntasunari izendapen batzuk gehitu behar zaizkio, nahasketa handitzea besterik ez baitute lortzen. Nazioarteko esparruan “kontseilu” izena hartzen duten erakundeak egoteaz gain (ONUren Kontseilua, Europako Kontseilua, e.a.) Europako Elkarteetan ere horrela izendatzen diren bi instituzio daude: Kontseilua bera (dagozkion ministroek osatua), eta Europako Kontseilua (lehendakari edo lehen ministroek eta



Europako Batzordeko lehendakariak osatua). Horri guztiari, gainera, Komisia, Giza-Komitea eta Ekonomikoa, Eskualdeen Komitea eta Europako Parlamentua gehitu behar zaizkio. Bestalde, eskumeneko organoekin arazo bera daukagu. Laburtuz, esan genezake, Batasunaren barruan sortu den nahasketa honek, guk uste, hiritarrekiko urruntasuna eta Batasunaz dagoen ezjakintasuna areagotzen dituela.

Gainera, uste dugu Batasuna “urritasun demokratiko” izenez salatu dena jasaten ari dela. Bizi garen estatuen Europa honetan Europako Parlamentua oraindik bigarren mailako instituzioa da. Nahiz eta erreforma eta itun desberdinek bere funtzio eta eskuduntzak gehitu dituzten, ez dauka ekimen legegilerik, Elkarteko estatuentzat funtsezkoak diren gai batzuetan aholku-emailea besterik ez da eta gaitasunak dituen gaietan Kontseiluarekin batera hartzen ditu erabakiak. Edozein demokraziatan parlamentua hiritarren espresiorik gorenaz izaten da. Kontseiluak, bestalde, zenbait gai “hautemangarritan”, fiskalak edo sozialak kasu, adostasun-baldintza mantentzen du. Horrek, jakina, Batasunaren funtzionamendu zuzena oztopatzen du. Itunen erreformak berak guztion adostasuna eskatzen du. Eratze europarrak aurrera egiten ez badu gobernu gehien jakobinismo amorratuagatik da. Gobernu hauek eratze horretan aurrera egitea nahitanahiezkoa dela eta europeismoak herri gehienetan zale asko dituela badakite ere, negoziatzean uzkur dira subiranotasun-kuotarik galtzeko. Haiek esaten digute guri gero, estatirik gabeko nazioetako nazionalistek, berekoiak eta ez-unibertsalak garela.

Arestian aipaturiko urruntasun instituzionala eta funtzionamendua dira gure ustez Europako Elkarrekin pairatzen ari diren urritasun demokratiko horren arazorik nagusienetarikoa bat.

Hedapenari begira egoera hau aldatu behar da. Europako Elkarrekin 6 estatuen funtzionamendurako sortuak daude. Ozta-ozta ia funtzionamendu bera mantendu ahal izan da 15 estaturekin, baina denak ados gaude 27 edo 28 estaturekin mantentzea ezinezkoa izango dela. Horrexegatik 2000. urtean Berlin-en Humboldt Unibertsitatean Joschka Fisher-en, Alemaniako kanpo-arazoetarako ministroaren, hitzaldiaz geroztik Europako Konstituzioaren beharrari buruzko eztabaida birsortu zen. Konstituzioak hiru Komunitateak bateratuko lituzke eta Batasuna osatuko luke. Xedapen komunitarioen muina barne hartuko luke, hala nola, printzipioak, politika eta eskuduntzak, instituzioak, botereen banaketa, eta nola ez, giza eskubideen deklarazio zehatza. 2000ko Nizako Itunak ez zuen aldaketa nabarmenik ekarri eta 2004. urte arte itxoin beharko dugu Europako Elkarrekin bilakaera ezagutzeko.

Europako Batasunak Nizako Ituna sortu arte ez zeukan giza eskubideen deklarazio zehatzik. Kolonia (1999ko ekainaren 3 eta 4) eta Tanpere-ko (1999ko urriaren 15 eta 16) Europar Kontseiluetan Konbentzio baten sorrera adostu zen. Konbentzio hori estatuburuak, Batzordeak, Europar Parlamentuak eta Parlamentu estatalek, eta beste



begirale batzuek osatu zuten eta Oinarrizko Eskubideen Gutun bat egiteaz arduratu zen. Konbentzio hau bere lanarekin 1999ko abenduaren 17an hasi zen eta 2000ko irailean bukatu, urriaren 13 eta 14an Miarritze-ko Europako Kontseilura lehenengo zirriborroa eramateko. Abenduan Nizan onartu zen Oinarrizko Eskubideen Europako Gutuna. Gutun hau ez da loteslea eta ez dauka indar legalik, baina EBn zegoen hutsune bat bete du. 54 artikuluk osatzen duten gutun honek ia gizabanakoaren eskubideak deritzotenak bakarrik biltzen ditu. 21. artikulua ez-diskriminazioari buruzko printzipioa adierazten du eta 22.a aniztasun linguistiko eta kulturalaz ari da. Hortxe espero dugu, gutxiengo linguistiko eta kulturalen arazoa behinik behin planteatzea. Zenbait txostenek aniztasun linguistiko eta kulturalen sustapen eta errespetoak duten garrantzia onartu dute; hona hemen adibideren bat: giza eskubideen egoerari buruzko Haarder txostena, bertan gutxiengoen babespena EBren zutabe nagusienetarikoa bat dela azpimarratzen da; edo 2000ko martxoaren 16an Europako Parlamentuak onartu zuen Ebazpena, zeinak P kontuan hartuzko bat sartu baitzuen, non gutxiengoan dauden hizkuntza eta kulturen sustapen eta babespena ezartzen baitziren.

Gaur egun EBren funtzionamenduan giza eskubideen babeserako “erreferentzia sistema” izeneko dago, hau da, Europako Batasuneko Itunaren (TUE) 6.2 artikulua honako hau gogorarazten digu: “Batasunak oinarrizko eskubideak errespetatuko ditu 1950eko azaroaren 4an Erroman sinaturiko Giza Eskubide eta Oinarrizko Askatasunerako Europako Hitzarmenean bermatzen den bezala, eta europar Zuzenbidearen printzipio orokortzat hartzen diren Batasuneko Estatu guztietan errepikatzen diren tradizio konstituzionaletan agertzen diren bezala”. Era berean artikulua horren lehenengo atalak ezartzen du: “Batasuna, askatasun, demokrazia, giza eskubideekiko eta oinarrizko askatasunekiko errespetuei buruzko printzipioetan eta Zuzenbidezko Estatuan oinarritzen da. Printzipio hauek Batasuneko Estatu guztietan errespetatzen dira”. Europako Elkarteko Itunaren (TCE) 13. artikulua dio: “Kontseiluak ... sexuan, etnia edo arrazan, erlijio edo uste sendoetan, minusbalotasunetan, adinean edo sexu-orientazioan oinarrituriko diskriminazioaren aurkako neurri egokiak hartu ahal izango ditu”. 1993an Kopenhage-n hartutako orientabideek, giza eskubideekiko errespetua edozein estatuk EBn sartzeko bete beharko duen baldintza dela esaten dute.

Erreferentzia sistema hau, gure iduriko, nahasia eta kalterako da, hasteko Erromako Itunari eginiko erreferentzia ez baita TCEn errepikatzen eta gainera ez baitute oinarrizko eskubide guztien errespetu bera bermatzen, ezta zehazki mugatzen ere. Horretaz gain aipatu behar da bigarren eta hirugarren zutabeekin (kanpo-politika amankomuna eta justizia eta barne-lankidetzak) sortzen den ziurgabetasuna, bertan Europako Elkartearen Justizia Auzitegiak ez baitauka eskumenik. Gaur egun europar markoan giza eskubideak ikustezinak direla baieztatu daiteke. Hala ere, Justizia



Auzitegiak bere jurisprudentziarekin Europar Batasunak oinarrizko eskubideak zaintzeko duen betebeharra baieztatu eta taxutu du.

Autodeterminaziorako eskubidea EBn planteatu ere ez da egiten. Arras ezaguna da estatuek nola interpretatzen duten 1966ko abenduan ONUk hartutako eskubide hau formalki ezartzearen erabakia. Europar markoaren barruan Europako Parlamentuaren Erabaki desberdinak besterik ez dugu aurkitzen Ekialdeko Timor (199/7/30ko 219. DOC, beste batzuen artean), Mendebaldeko Sahara (199/4/14ko 104. DOC, beste batzuen artean), Sudan (1998/06/01eko 167. DOC) edo Txetxeniarako (1996/1/22ko 17. DOC) autodeterminaziorako eskubidearen erabiltze librea eskatuz. Azken honetan D kontuan hartuzkoa azpimarratu behar da zeinak esaten baitu “EBren printzipioetako bat herriek autodeterminaziorako duten eskubidea onartzea da ...”. Beti bezala, europar estatuek kanpora begiratzen besterik ez dakite egiten.

Zeharkago, 1977ko apirilaren 5eko oinarrizko eskubideei buruzko Batzorde, Kontseilu eta Parlamentuaren baterako deklarazioak adierazten du 1966ko abenduaren 19ko eskubide politiko eta zibilei buruzko Hitzarmen Internazionalak Itunen atal integrala izan behar duela. Europako Parlamentuaren 1989ko apirilaren 12ko oinarrizko askatasun eta eskubideen Deklarazioari buruzko Erabakiak (1989/5/16ko 120. DOC) demokraziaren printzipioez hitz egiten duen 17. artikuluan esaten du: “botere publikoa hiritarrendik dator eta legeen arabera erabili behar da”. Artikulu honetatik autodeterminaziorako eskubideari buruzko interpretazioak egin litezke. Azkenik, 1994ko otsailaren 10ean Europako Parlamentuak hartutako Erabakiak (1994/2/28ko 61. DOC) Europako Konstituzio bat izan litekeenaren zirriborroa onartzen du. Egia esan, zirriborro honek arestian aipatu eskubidea ez onartzeaz gain, lehenengo hitzetik aurrera zapaldu egiten du. Horrela 1. artikulua bere lehenengo atalean esaten du: “Europako Batasuna barruko Estatuak eta bertako hiritarrek osatzen dute eta haiengandik dator boterea”. Egia da alde handirik ez dagoela honen eta TUEaren 1. artikulua eta TCEaren 1. eta 2. artikuluen erredakzioaren artean, azken hauek “Estatu”ei buruz hitz egiten dutenean. Bigarren atalak dio: “Europar Batasunak barneko Estatuaren herentzia historiko, kultural eta linguistikoa errespetatuko ditu, baita beraien egitura konstituzionala ere”. Eta berdinean egiten du 8., 10. eta 11. artikuluetan bakarrik estatuaren arteko lankidetzaz hitz egitean (eskualdeak, e.a. ahaztuz) eta baita subsidiaritate-printzipioa ezartzen duenean ere, estatuei bakarrik aplikatzen baitzaie. Azkenik, 45. artikuluan esaten da baldintza batzuk betetzen dituzten estatuak bakarrik sartuko direla Europako Batasunean. Argi dago, Europa hau estatuena eta estatuentzat da.

Beraz, hauxe da auziaren iltzea: gaurko Europako Batasuna soil-soilik estatuaren Batasuna da. Euskal Herria bezalako estaturik gabeko nazio edo eskualdeek ez dute ez ahotsik ez botorik, hurrengo hedapenarekin zentzugabekoegoerak eta egoera guztiz bidegabeak emango diren bitartean. Pentsa dezagun Malta-z, bere integratzean beti gure



laguntza izango duen herriaz. Malta 380.000 biztanletako estatu bat da, zeina zorte historikoaz gaur egun independentea baita. Maltak Kontseiluan eta Europako Kontseiluan ahotsa eta baita botoa emateko eskubidea dauzka. Era berean, Batzordean Maltako ordezkari bat –gutxienez- (txandakakoa behintzat) eta 5 eurodiputatutatik gora izango lituzke. Euskal Herria, estaturik gabeko nazioa, 3 milioi biztanletakoa eta bi estatutan banandua, ez dauka ez ahotsik kontseiluetan ez komisaririk eta Espainiar estatuari dagozkion diputatuen kopuru-murriztapena dela eta, 64tik 50era, Europako Parlamentuan gehienez 4 edo 5 eurodiputatu izango ditu. Lehen aipatutako hitzaldian Joschka Fischer-ek oso argi utzi zuen, Europa egun dauden estatu-nazioak oinarriztat hartuta osatu behar da. Hitzez hitz errepikatuko dugu berak esandakoa “europar eratzea gora-behera, guk britainiarrak, alemaniarrak, frantsesak edo poloniarrak izaten jarraituko dugu. Estatu-nazioek existitzen jarraituko dute eta europar mailan Länder alemaniarrek dutena baino askoz ere paper nagusiagoa betetzen jarraituko dute. Eta federakuntza horretan subsidiariedade-printzipioa konstituzionalki finkatuko da”. Baina, alemaniar batek hitz egiten duen bakoitzean frantses batek aurrerago joan behar duenez, Chirac-ek oso argi utzi zuen honako hau “lortuko duguna estatuen Europa batua izango da, eta ez Europako estatu batuak”.

Hala ere, zenbait europar estatuk erakunde ez-estatalen ordezkaritza mekanismoak eratu dituzte europar instituzioen aurrean. Alemania, Austria eta Belgika-k eta gutxixeago, Erresuma Batua eta Portugal-ek halaxe egin dute.



2. kapitulua

Europar txikia izatea¹

Hitzaurrea

Europar Batasuna egun hiru estatu mota ezberdinez osatzen da; alde batetik sei estatu handi ditugu, 40 milioi biztanle baino gehiagoko dituztenak, eta batera EBeko biztanleriaren %70az goiti osatzen dutenak. Beste aldetik, estatu ertainak daude, 10 maila honetan, 8 eta 22 milioi biztanle artean dituztenak, Europar Batasuneko biztanleriaren %25a, hain zuzen. Azkenik 11 estatu txiki daude, zeintzuk EBko biztanleriaren %5a soilik batzen dutenak guztien artean. Tamainak duen garrantzian oinarritzen den politika egitea EBan ez da berria, ostera. Giscard d'Estaing presidente izanik, Europako etorkizunari buruzko Bilerako Osoko Bilkuran zabaldu zuen hitzaurrean argi utzi zuen estatu kide hala handien nola txikien existentzia, jada Europar Batasuna eratu zuten 6 kideen naturan barne zegoela.

Estatu jendetsu eta ez jendetsuen arteko liskarrak, edozein batasun federalen ezaugarri normala da, eta orain dela 2 bi mende antolatutako Filadelfiako Bileran, adibidez, sortu zen gatazka nabarmenetako bat izan zen. Bueltatu gaitezen, baina, gure EBra: modu batean edo bestean, Europar Batasunaren zabalkuntzak handien eta txikien arteko tentsioak areagotu dituela esan genezake, eta beraz, hasiera batean ezberdintasun hauei aurre egiteko pentsatuak izan ziren mekanismoak berrikustera behartuak izan dira. Askotan estatu kide txikiek Europako Batzordea jo dute beraien interesen babes instituzional moduan, izan ere Batzordeak askotan egin du berea ekimen honen monopolioaren kudeaketa, Itunaren zaintzaile lana eta estatu handien boterearen kontrapisu jarduna. Europako Batzordearen historian ikus daitekeenez, instituzio independentea izan da beti, interes europarrak zaintzen eta jarraitzen. Hartara, BENELUXeko herriak Batzordearen jarraitzaile eta aldeko leial bilakatu ziren. Jarduera berdintsua eduki zuten beste herri txiki eta ertain batzuk, EBan sartzen zihozten heinean. Estatu handiek, ostera, susmo eta errezeloz hartu zuten txikien alboratze hau.

Testuinguru orokorra

¹ **Marc Gafarot:** Giza zientzietan lizentziatua, Ikasketa europarren masterra egin du. Oraintsu Belgikako federalismoaren eta bere geroaren inguruko liburua idatzi du



Europar Batasuna, marko instituzional bakarraren baitan garatzen den nazioarteko lankidetzeta eta elkarreragin politikoaren eredu hobereena da. Marko instituzional egonkor eta baketsu baten baitan, aktore ezberdinen elkartasuna eta lankidetzarekin oparotasun-iraunkortasun ekonomikoa lortzearen adibide argia da. Esan daiteke, beraz, EBak, nazioarteko harremanak garatzeko prozesuan, laborategi gisa jokatzeko duela. Ikatz eta Altzairuaren Europako Erkidegoa (IAEE) eratu zenean, estatu txikiek (hau da, BENELUXak) botaketetan ordezkariak handiagoa lortu zuten, estatu kide handien boterea nolabait orekatzeko. Gaur egun arte, sistema honen ideia errespetatu da, zenbait konponketa eta ñabardura erantsiz, noski. Argi dago 27en (edo gehiagoren) Batasuna ez dela hasierako 6en berbera, baina oraindik ere oinarritzat hartu zituzten balore gehienak gordetzen dira. Badago EBean arau bat zeienek ezartzen duen ezin direla soilik balore nazionalak defendatu, baizik eta EBaren interesa den ikuspegi zabalagoaz aritzea. Gaur egun, arau honen interpretazioa zertxobait malguagoa den arren, bere horretan jarraitzen du.

Erabakiak hartzeko EBak duen sistema, bere aniztasuna argien islatzen duen osagarri estrukturalerako bat da. Sistema honek elementu federalak (federazioetan azaltzen direnak) beste nazioarteko erakundeek erabiltzen dituzten gobernuarteko elementuekin nahasten ditu. Hartara, urteetan zehar eman diren zabaltzeak sistema hau jarraitzera behartuak egon dira. Estatu handiak txikien aurka; gobernuartekotasuna federalismoaren aurka,... aurkakotasun hauek dira, hein batean, guztion artean, europar integrazioaren prozesua aurrera eramango duen bide orokorra eraikitzeko arazo nagusienetako bat.

Federalistek Batzorde sendo zein gardenagoa ikusi nahiko lukete, botere betearazle gehiago dituen Parlamentu baten ondoan. Gobernuartekotasunaren aldekoak, ostera, Kontseilu boteretsuak egun duen egitura, erabakiak hartzeko monopolioarekin ia (bere inplikazio zuzen eta zeharkakoekin) gorde nahi dute. Hemen ez dugu EBaren barne arazoan azterketa edota analisisa egon nahi; nola nahi ere, beharrezkoa zaigu jakitea zein testuingurutan ari garen jokatzeko, eta noraino, hautsi-mautsi instituzionalok gure politika eta helburuen gain eragina izan dezaket. Gainera, etorkizuneko estatu-kideentzako - Euskadi, Gales, Eskozia, Katalunia... auskalo- euren interes eta helburuak lortzeko, interesgarria eta egokia izan daiteke zein instituzioen bitartez eta zein aterpetan ibili beharko diren jakitea.

Esperientziak erakutsi du "Sandwicharen Teoriaren" alde apustu egin zutenek zein erratuak zeuden. Teoria honen arabera, estatuaren boterea alde batetik "Europak" estali beharko luke legegintza alorrean, eta bestetik, eskualdeek, legearen betearazle gisa. Jada burutua dagoen integrazio prozesuak erakutsi du nola estatuak, hainbat trikimailu ezberdinez baliatuz, euren botere tradizionala gordetzea lortu duten beste mailen gaindi. Alan Milward integralariaren ideia azpimarratuz, esan genezake,



nolabait, estatuak logika *gattopardiano* bat jarraitzen dutela EBarekiko; "gauza askok aldatu dute ezerk alda ez dezan". Honek guztiak beraz, "Barne zabaltze" batean alde egitera garamatza; esan nahi baita, lurralde (estatu) bateko zati bat bestearengandik zatitzen bada, eta lurralde hau zatiketaren aurretik jada Europar Batasunaren barne badago, zati berria automatikoki EBan integratzen da. Oraindik egoera hau eman ez den arren, (kontrako adibidea bai ordea, Groenlandia eta Danimarkaren arteko kasuan esaterako), ez litzake arazoa izango doikuntza hau juridikoki onartzeko. EBean ematen diren gauza asko moduan, kontua borondate politikoan datza, arazo juridikoan baino gehiago.

"Txikia" hitzaren konplexutasuna

Zaila da "aberri txikien multzoaren" lelopean "herritxo" guztiok izendatzea. Estatu txikien taldearen heterogenotasuna oso handia da, eta alor ezberdinetan argi geratzen dena. Gainera, inoiz ez dute ondo koordinatutako koalizio egonkorra sortu. Orain Irlandako lehen ministro dena, eta arestian Kanpo gaietarako sailburu zen Brian Cowenek argi agertu zuen konplexutasun hau 2003an: *Segurtasun eta defentsan Suedia eta Finlandiarekin parekotasunak ditugu. Batzordearekiko ditugun iritziak Beneluxak dituenen antzerakoak dira. Gai fiskaletan Erresuma Batuarekin lankidetzan ari gara, eta Frantziarekin nekazaritza kontuetan* ". Aktore ezberdinek EBaren barnean antzezten duten joko interkonektatuaren adibide garbia da euren interesak lortzeko, eta argi erakusten du nola herri batek, betidanik txikia izan dena, eta orain gainera aberatsa, bere aliantza estrategikoak eraikitzen dituen.

Herri txikiek, arestian aipatu dugun ideia luzatuz, oso interes ezberdinak dituzte bata bestearekiko. Baina, instituzioekin zerikusia duten gaiak mahai gainean jartzen direnero, estatu kide txikiek berehala bat egiten dute, babes zabalagoa lortzeko asmoz, estatu handiek zanpatuko dituzten beldurrak eraginda askotan. *De facto*zko errealitateak erakusten du estatu txikiek onura handiak ateratzen dituztela subiranotasuna besteekin elkarbanatzean; batetik txikia bezain astuna den kontinentearen baitan euren interdependentzia kudeatzeko modu egokiagatik, eta bestetik, nazioarteko agertokian beraien jatorrizko subiranotasuna berreskuratzeko bide gisa.

Eraginaren eskalan, pisuak dakarren arazoa

EBean erabakiak hartzeko orduan, estatu txikiek duten pisua euren zenbateko handian datza. 27 estatu kideetatik 10ek jasotzen dute "estatu txikien" izen konbentzionala. 2004ko zabalkundearen eraginez, hauen zenbatekoa ia bikoiztu egin zen. Horrez gain, "mikroestatu" izena ere ezartzen da, Malta, Zipre, Eslovenia, Estonia



eta Letonia izendatzeko, kideen sailkapena oraindik zailagoa eginez. Lisboako Ituna ezarriz gero, ondorioetako bat erabakiak hartzeko prozesuan parlamentu nazionalek hartuko duten paper garrantzitsua izango da. Honek, independentziaren alorrean zer esan nahi du? integrazio europarrean Euskadi edo Nafarroako parlamentuek izango duten kontrol zein garrantzi politikoaren gorakada, hain zuzen.

Neurriak estrategia tekniketan eta hauen etekinen gain eragina du

Estatu handi eta txikien arteko gatazkaren beste adierazgarri bat, Berdintasun eta Ordezkaritza demokratikoaren printzipioak sustatzean, estatu-kide ezberdinean arteko tentsio nabaria dugu. Aurrez aurre agertzen diren ikuspuntuok nolabait gerturatzeko txiki zein handientzako formula ezberdinak daude: Aberri txikien interesak babesteko asmoz, botoen haztatze sofistikatua ordezkaritza anitzarekin batera eskaintzen zaie. Estatu zabalek berriz erabakiak hartzeko prozesuan ahots ozenagoa edukitzearen abantaila eskainiz. Estatu-kideen boterearen banaketa EBaren naturarekin lotua dago erabat, eta bere baitan, bi aukera daude: estatu-nazio independenteen batasuna, edo modelo federal berezia. Baina, bi abiadurako Europak dikotomia hau are gehiago korapilatuko luke. Nolanahi ere, badirudi mekanismo hau izan daitekeela egun bizi dugun geldialdiarekin amaitzeko tresna eraginkorrena. Gobernuarteko modelo soilean, ezin da inolako ezberdintzerik egin Frantzia moduko estatu handi baten eta Malta bezalako txiki baten artean, ahobatekotasuna eskatzen duelako sistema horrek, eta beraz ezinezkoa da berau erabiliz jardutea. Betoak duen boterea gordetzea, kasu askotan kaltegarria suerta daiteke eraginkortasuna baldin bada helburua.

Kontseiluan, aberri bakoitzaren botoen zenbatekoa euren biztanleriarekiko proportzionala da. Bertan hartzen diren erabaki gehienek, beraz, botoen gehiengo kualifikatua eskatzen dute onartuak izateko. Estatu txikiek euren biztanleriak ematen dizkien baino ordezkaritza zabalagoa dute, halere, eta beraz, aukera egokia zaie aktore eraginkor bihurtzeko eta erabaki prozesuetan euren nahiak ase ahal izateko. Europar mailan aurki daitekeen buruhausteetako bat, alabaina, arazo simple batek askotan konponbide nahasi eta zaila eskatzen duela da. Orain EBak aurrez aurre duen erronka nagusietako bat, hain zuzen, erabakiak hartzeko sistema sinplifikatu, erraztu eta azkartzeko sistema egokiarekin ematean datza. Eta arlo honen barruan, estatu txikiek sekula izan duten aukera aurki dezakete, izan ere asko dago jokoan eta historiak erakutsi digunez, Europar Batasunean garrantzi handia du erregutzeak, eta noski, erregutuak izaten jakiteak, maisu askok (Alterio Spinelli kasu) erakutsi duten gisara.



EBan txikia izatearen onurak azaltzen dituzten 10 arrazoi (instituzional)

EBaren baitan, boterea, influentziak ondo erabiltzearen sinonimoa da.

EBk estatu txiki batentzako testuingururik egokiena bere kanpo politika zein segurtasun kooperazioa garatzeko.

Ministroen Kontseiluan, estatu txikiak aulki eskudun hobetzat hartzen dira.

1. Estatu txikiak influentzia esparru zabalagoa lor dezakete subiranotasunak erronka handiak jasan behar dituen nazioarteko sistema batean, eta bestalde instituzio multilateralek geroz eta garrantzi gehiago dute *scenario* internazionalen. Instituziook *agora* fidagarria eskaintzen diete estatu txikiei beste estatuen ekintza eta lehentasunei buruzko informazioa jasotzeko. Oso eraginkorra den komunikazio bidea dira.
2. Estatu txikiak independenteak dira, eta askotan garrantzi handiko papera betetzen dute balantza talde politiko handi baten edo besteren alde kokatzeko orduan. Aberri txikien erreferentzia boterea, arazo zehatzen bat duen alorrean jakintza eta konponbideak luzatzean datza. Euren lana eta atentzioa alor politiko zehatz edo gutxitan kontzentratzeak onura asko ekar diezaioke herri txiki bati, baldin eta influentzia hau gaien inguruko jakintza eta trebetasunarekin bat erabiliz gero.
3. Estatu txikiek ez dute zertan handiek baino abilagoak izan behar, eta beraz, influentzia tartea lortzeko, estrategikoki jokatu behar dute. Bitartekari lanetan aritzeak, askotan, estatu handiek dituztenak baino abantaila gehiago eragiten dizkie, azkenok botoetan pisu handiagoa edota lehengai gehiago izanda ere. Badirudi "azeri" izatean datzala 27en (edo gehiago) EBan buruzagitza lortzearen koska.
4. Europar Batasunean eraginkor edo "*influente*" izateak ez du besteei bakoitzaren iritzia inposatzea esan nahi, baizik eta ekintza plan bat aurkeztean, eta honen egokitasunera beste guztiak (edo gehiengo) bairatzean baizik.
5. Bitartekari moduan estatu txikiek egiten duten lana –batez ere, geldialdi politikoren bat azaltzen denean– onura politiko franko ekar diezaike. Koalizioak eraikitzea eta bitartekari lanetan aritzea elementu zentral bilakatzen dira kooperazioan oinarritzen den alor batean (EBa kasu), eta hauetan estatu txikiek influentzia garrantzitsua berma dezakete, nazioarteko mailetan agertzen den kooperazio egoeran, Gainera, "estatutxoek" denon artean araututakoa betetzen dute gehienetan, eta guztien arteko kontsentsu positiboaren bilaketan, bitartekaritzara jotzen dute maiz.



6. Estatu txikiak koalizioak eraikitzeke orduan askoz aktiboagoak izaten dira, eta parada ahulago batetik abiatutako negoziaketetan aurrera irteteen esperientzia handiagoa dute. Europar Batasuna zabaltzen joan den heinean, estatu kide oro pisu instituzionala galtzen joan da. Kontsentsua arau bilakatu da beraz, eta horretan abila izatea beharrezko giltza da.

7. Beste estatuekin modu bateratuan erabakiak hartzea oso erabilgarria da estatu txiki baten influentzia indartzeko. Erakundeek hori jakin badakite, eta herri txikiei, jada onartu diren arau eta erabakiak estatu handiek ere bete ditzaten, guardia lanetan jardutera bultzatzen diete, prozesu horretan txikien ekarpenak aintzat hartuz eta ahal den neurrian bultzatuz.

8. Nazioarteko erakundeen barruan, estatu bakoitzaren boterea askoz txikiagoa da, eta askoz interesgarriagoa da gai zehatz bat jorratzean lortzen den botere espezifikoa. Estatu txikiek, beraz, errealitate honi probetxua atera diezaiokete.

9. Europako Batzordea estatu txikien aliatutzat hartu izan da beti. "Erkidegoko metodoa" deitzen denak, estatu handi, ertain eta txikien arteko ezberdintasunak parekatzen saiatzen da. Batzordearen eragin nagusia ez dago, ordea, lan-agenda egokia ezartzean, baizik eta, agenda hori moldatzen joatean erronka berriak agertzen direnero, proposamen berritzaile eta eragingarriak sartuz bertan. Alor hau bereziki probetxugarria izan daiteke estatu txikientzat nola koalizioak eraikitzeke, hala influentzia eta limurtze sare eraginkorra prestatzeko.

10. Estatu txikiak ahulak izaten usten dute ideia berriak aurkeztean, hauek modu azkar eta limurtuan erabiltzen dituztenean. Aberri batentzat interes estrategikoa duen gai batekin hartzen den konpromisoa (eztabaida agendan sartzeko erabiltzen dituen bideak barne) ideioek ekintzan plasmatzeko giltza da. Limurtze ekintza hori, beraz, estatu batekin izan dezaken indarririk boteretsuena izan daiteke.

Abantaila ekonomikoak

- ✓ Estatu txikiak irekiagoak eta (gehienetan) homogeneousagoak izanik, elkartasun egitura gehiago garatzen dituzte, kanpotik etor daitezkeen arriskuei aurre egiteko. Jarrera honek erronka latzak ekar ditzake, batez ere estatu txikiek nazioarteko integrazioaren usu indartsua egiten dute uneetan. Garai horietan, estatu txikiek, handiak (eta beraz, askotan motelagoak) nazioarteko integrazioak eskaintzen dituen aukerei onura ateratzeko, euren estruktura aldatzera bultzatzen dituzte. Prozesu hau *Katzestein tesiaren* adibidea da; historikoki, estatu txikiak



izan dira orokorrean, estatu handiek baino elkartasun eta solidaritate egitura zabalagoak garatu eta gizarte estruktura hobea eraiki dituztenak.

- ✓ Estatu handiak, kasu askotan, biztanlearen gehiengoarentzat interes handirik ez duten gaiak negoziatzeko prest agertzen dira. Eskozia eta arrantza, edo Euskadi zein Katalunia eta hizkuntza, adibidez.
- ✓ Estatu txikien negozio sektorea eta lan merkatua integrazio europarrak eta globalizazioak dakartzan erronkei malgutasun handiagoz egokitu da.
- ✓ Orain arte, estatu txikiek Lisboako Prozesuak jarritako helburuei aurre egiteko jarrera hobea erakutsi dute. Honek lan merkatuarekiko garapen zabalagoa eta hazkunde ekonomiko handiagoa ekarri die, Europako estatu handiekin konparatuz.
- ✓ Eman diren (eta potentzialki emango diren) zabalketa prozesuan gertatutako aukera enpresarialak, handiek baino abiadura azkarragoan bereganatu dituzte estatu txikiek.
- ✓ Burokrazia errazagoa eta eraginkorragoa izan ohi da estatu txikietan.

Egungo testuinguru instituzionala

Une honetan garrantzi handiko krisi politikoa ari da gertatzen europar politikaren eszenatokian. Irlandarrek Lisboako Itunari emandako ezezekoak berriro ere integrazio prozesuan hainbat kezka azaleratu ditu, eta noski, nola edo hala, zalantza hauei erantzuna eman beharko zaie. Aukera anitzen artean, zein motatako konponketa instituzional aplikatu beharko dira datozen urteotan? Nizako Itunean agertzen diren xedapen instituzionalekin jokatu behar dugu, ala patuak Lisboako ekialde urrunera eramango gaitu? Oraingoz, ez da erraza galdera hauei erantzutea. Suedia, Txekiar errepublika, Erresuma Batua edo Polonia bezalako estatu “euroeskeptikoek” itunen berrikuspena eskatzera tentatuak ager daitezke, Europarentzat atzerapausoa suposatuko luketen ikusmoldeak aurkitu asmoz. Oraingoz, badirudi Txekia errepublikak, 2009ko lehen seihilekoan EBaren presidentzia duen herriak, ez duela Lisboako “gaia” gehiegi mugitu nahi. Are gehiago, zeharo ahaztu nahi duela dirudi, bertako liderren dabilztan iritziei men eginez gero. Europak oraindik ez du tunelaren amaierako argirik ikusten, eta ez litzake arraroa izango azkenean, inor kontent utziko ez duen konponbidea hobestea – edo ez hain txartzat hartzea-. Instituzionalki, aldaketan “paketeak” eskatzen zuen aldaketok 2004ko zabalketa baino lehenago egitea. Interes edo ikuspuntu politikoak beste bide bat hartu zuen, eta gaur egun oraindik, erabaki hura garesti ari gara ordaintzen.



Lisboako Itunak ezartzen dituen aldaketa esanguratsuenak hurrengoak dira:

- EBko Kontseiluan, botoen gehiengo kualifikatuaren zabalketa
- Prozesu legegilean, Europar Parlamentuaren inplikazio geroz eta handiagoa, Kontseiluarekin batera erabakitzeko ahalmen gehiago emanez
- Komisarioen zenbatekoa 27tik (orain ditugunak) 18ra jaiste, pilare sistema desagerraraziz
- Europar Kontseiluko Presidentearen eta Kanpo Gaietarako Ordezkari gorenaren sorrera, EBeko kanpo politiketarako ikuspegi bateratua igor dadin.

Lisboako Itunak EBko koordinaketa zein legegintza gorputz nagusian, hau da, Ministroen Kontseiluan (estatu kide oro ordezkatzeko duenak), boto sistema berria ezartzen du. Batetik boto sistema berriarekin, eta bestetik europar Batzordearen eraketa berriarekin, EBaren funtzioa hobetu nahi da. Orokorrean, Kontseiluko erabakiak gehiengo kualifikatuz onartzen dira, esan nahi baita, estatu-kideen tamaina ezberdina islatzen duen botoaren ponderazioaren bidez. Orain, 345 bototatik 255 behar dira lege bat onartzeko.

Lisboak, gainera, “gehiengo bikoitzaren” boto sistema berria ezartzen du, zeinek estatuen pisua ponderatzen duen biztanleriaren pisura hurbildu asmoz. Sistema honekin, gehiengo kualifikatuaren bidez erabaki bat onartzeak oztopo bikoitzari aurre egitea esan nahiko du, hau da, gutxienez EBeko biztanleriaren %65a ordezkatzeko duten estatu kideen botoen % 55a baino gehiago lortu beharko dute. Kontseiluak bere esana eman beharko duenean batzordetik ez datorren proposamen baten inguruan, orduan estatu kideen %72aren onarpena beharko da, biztanleriaren irizpideak berdina izaten jarraitzen badu ere. Proposamen bat blokeatzekotan, gutxienez 4 estatu kidek proposamenaren aurka bozkatu beharko dute.

Nizako Ituneko bozketa araudiak ezartzen du estatuen gehiengoak (%50a/%67a), botoen pisuak (%74) eta biztanleriak (%62) berdin jarraituko duela 2014 urtera arte, gutxienez. 2014 eta 2017 urteen artean, trantsizio aldi bat eman beharko da, eta gehiengo kualifikatu bidez erabakiak hartzeari buruzko araudi berria eraiki. Edozein modutan, Nizak ezarritako araudia aplikatzen jarraituko da estatu kide batek hala eskatuz gero. Nizako Itunarekin jarraituz, estatu kideko Komisario bat izatearen sistema zaharkitua geratu dela ere adierazten da. Bertan azaltzen da Komisarioen zenbateko murrizteko erabakia, baina ez da zehazten zein modutan egingo zen.

Beste alde batetik, Lisboak, parlamentu nazionalak indar gehiagoz barneratzen ditu erabakiak hartzeko prozesuan, eta Europako Batzordeari eskatzen dio legegintza proposamen berriak 27 parlamentuei bidaliak izatea, hauek eztabaidatu eta euren iritzia eman dezaten. Erabakiak hartzeko unean aldaketa handia suposatzen duen xedapena, eta



estatu txikientzat zinez garrantzitsua izan daitekeena, Batzordearen tamaina txikitzeko klausula da. Honen arabera, 2014tik aurrera, Europar Batasuneko estatu bakoitzak, 3 Batzordealdi birritan soilik izendatu bai dezakete bere Komisarioa.

EBko erakundeetan ordezkariak eta botoak

Niza ezarriz gero:

Estatu txikiek hurrengo botere kuota eta ordezkartzaren banaketa izango lukete:

Botoak Kontseiluan:

Danimarka, Finlandia, Irlanda, Eslovakia, Lituania: 7.

Gales: 6 edo 7.

Luxenburgo, Letonia, Estonia, Eslovenia, Zipre: 4

Malta: 3

Eskualdeen Komitea:

Gales: 8 edo 9 (Lituania 9)

Estonia, Letonia, Eslovenia: 7

Zipre eta Luxenburgo: 6

Malta: 5

Komite Ekonomiko eta Sozialean ordezkariak:

Gales: 8 edo 9 - Lituania 9

Estonia, Letonia eta Eslovenia: 7

Zipre eta Luxenburgo: 6

Malta: 5

Europar Parlamentuan:

Galesek 10 eta 12 kide bitartean izan beharko lituzke (Lituanian 12 ditu)

Letonia: 8

Eslovenia: 7

Luxenburgo, Estonia, Zipre eta Malta: 5

Lisboa ezarriz gero:

Europar Parlamentuan:

Lituania 12

Gales 10-12 – Erresuma Batua 72/73 (+1) -

Letonia 8/9 (+1)

Eslovenia 7/8 (+1)

Estonia 6

Zipre 6



Luxenburgo 6
Malta 6 (+1)

Batzorde Ekonomiko eta Sozialean:

Gales 8/9
Estonia 7
Zipre 6
Letonia 7
Luxenburgo 6
Malta 5
Eslovenia 7
Erresuma Batua 24

Eskualdeetako Batzordean:

Gales 9 - Erresuma Batua 24-
Letonia 7
Estonia 7
Eslovenia 7
Zipre eta Luxenburgo 6
Malta 5

Europako Kontseiluan eta Kontseiluan, gehiengo kualifikatua behar duten ekintzetarako, estatu kideen artean, botoak honela banatuko dira:

Danimarka 7
Estonia 4
Irlanda 7
Zipre 4
Letonia 4
Gales/Cymru 5 edo 6 (Lituania 7)
Luxenburgo 4
Malta 3
Eslovenia 4
Erresuma Batua 29

Itunen arabera, Batzordeak proposatutako legegintza ekintzak onartuak izango dira, gutxienez 255 aldeko bozka agertzen direnean, estatu kideen gehiengoa ordezkatzuz. Beste kasuetan, erabakiak onartuak izango dira baldin eta gutxienez, estatu kideen gutxienez bi heren ordezkatzeko dituzten aldeko 255 bozka badaude.

Parlamentua eta Batzordea:



Lisboako Ituna onartuz gero, Europako Parlamentuko kideen zenbatekoa betirako 750 diputatutan geratuko da, nahiz eta estatu gehiago sartu EBan. Beraz 750 diputatu gehi Presidentea, 751 kide Europar Parlamentuan Lisboarekin. Ituan ez bada indarrean sartzen 2009ko ekaina baino lehen, parlamentarien zenbatekoa, egungo 785etatik 732ra pasako lirateke, Nizako Itunean xedatzen denari erreparatuz. Lisboak ere estatu batek Parlamentuan izan ditzakeen ordezkariak murrizten ditu handien kasuan, 99 kidetik 96era (Alemaniari gertatuko zaiona). Txikienei berriz, ordezkari bat gehitzen zaie. Hala, Estonia, Zipre, Luxenburgo eta Maltak 5 ordezkariatik 6 izatera igaroko lirateke.

Eta Batzordeari buruz zer dio Lisboak? Komisario zenbakia murriztuko du Lisboak 27tik 18ra. Hartara, gaurdaino gorde den akordioarekin bukatu egingo litzake, hau da, estatu kideko Komisario bat izatea, Europar Ekonomia Elkartea sortu zenetik, 1957an, indarrean egon den akordioa. Akordioarekin amaitzearen arrazoia sinplea da; ez dago eskumen nahikorik 27 Komisarioentzat, eta gainera, eraginkortasunari, azkartasunari eta argitasunari traba besterik ez dio egiten.

Europako Erkidegoetako Auzitegia (EEA):

Europako Erkidegoetako Auzitegiak, gailentasun eta Europako Erkidegoko Zuzenbideko printzipioetan oinarrituta, estatu kide handien posturak kontra-esan zezaketen sententziak egiteko eskumenak jaso zituen. Momentu hauetan, eztabaida akademiko sutsua dago zein puntutara arte Auzitegiak EBeko aktore indartsuenen interesei aurre egin dion jakiteko. Hau alde batera utzita, zalantzarik ez dago estatu txikiak EEaren altzoan daudela. EEaren konposaketak ez du aldaketarik nabarrituko Lisboako Itunarekin, eta beraz, epaile bat estatuko izaten jarraituko dugu.

Estatu txikiak EBaren barne egotearen eraginak. Puntu erabakigarriak

Ordezkaritza: Botere hartu-emanak

- Botere hartu-emanetan, botaketa eta erreforma ahalmenak
- Botoen Gehiengo Kualifikatuaren (BGK) eraketa eta blokeo zein onarpenen erabilera
- BGKren zabalera eta kide txikien interesak
- Erakunde-oreka kide txikientzako
- Beto eskubidea estatu txikien interesen alde



- eskualde-blokeen sorrera
- Hiritarren ordezkariak

Parte hartzea: eskubide berdinak ordezkariak demokratikoari jarkiz

- Buruzagitza
- Hizkuntza-erregimena
- Langile kualifikatuen kontratazioa eta bereizketarik ezaren printzipioa
- Parte hartze demokratikoa
- Hiritarren etorkizuna
- Erakundeen eraginkortasuna eta bidezko ordezkariak printzipioa

5 kide berri txikik dituzten antzekotasun positiboak

Orain aztertuko ditugun antzekotasunak Eslovenia, Malta, Zipre, Letonia eta Estoniari aplikagarriak zaizkie. Luxenburgori, estatu eratzaileretako bat den heinean, beste ezaugarri ekonomiko eta instituzionalak dituen kategoriak dagokio.

Ezaugarri nagusiak:

a) *Zuzenbide Estatuaren gailentasuna, ordezkariak demokratikoa eta legegintza garbia*

EBak erregimen totalitario zein autoritarioetatik datozen herriengan demokrazia eta Zuzenbide Estatu ezartzen lagundu du. Arestian ere gertatu izan da beste zabalkuntza batzuekin (hegoaldeko zabalkundea).

b) *Kopenhageko irizpideekin bat datorren mota ezberdinetako gutxiengo babesa*

EBak "ondare demokratikoa" deitu dezakeguna eratu du, gutxiengo eskubide eta giza eskubidea babestu eta zabaltzeko.

c) *Kanpo eta defentsa politika bateratua (aterki estrategikoa)*

EBeko estatuen historian zehar anitzak izan dira eman diren defentsa politikak, eta orain hauek bat eginik, EBA bakea eta elkartasuna gordetzeko testuinguru hobezina bilakatu da, baita influentzia handiagoa ezartzeko kanpo politikarako gaietan.

d) *Oinarritzko alorretan, europar araudiaren aplikazioa*



EBeko legediak, hainbat alorretan arau bateratuak ezartzen ditu; ingurugiroa, osasuna, elikadura, nekazaritza eta arrantza, lana, eskumen politika, elkarte zuzenbidea, hezkuntza eta prestakuntza, mugetako kontrola, ekintza poliziala, ... adibide batzuk aipatzearen.

e) *Fiskalitatearen eta aurrekontuen egonkortasun eta ortodoxia*

EBa marko finantzario egonkorrean murgilduko den kontinentea garatzeko ahaleginetan dabil, europar moneta baka eta indartsua izango duena. Horretarako, aurrekontuen oreka lortzea ezinbestekoa suertatzen da.

f) *Alor ekonomikoan erreforma sektorialek modernizazioa sustatu dute*

Europar Batasuneko kide izateak ez du soilik bizi maila hobea edo soldata altuagoak ekarri, baizik eta estatu kide berrietako egitura politiko eta sozialari balio erantsia eman die.

g) *Munduko merkaturik handienean aktore garrantzitsu izatea*

Langa komertzialen desagertzearekin bat, aukera enpresarial eta ekonomiko handiagoak agertu dira jada kide diren estatuen artean, eta zabalkuntzak aurrera jotzen duen, heinean, gehiago agertuko dira.

h) *EBko erakunde guztietan ordezkari nazionala*

Lan taldeetan, adituen taldean edo beste edozein batzordetan, interes nazionaleko ordezkariak mailak aldaketak jasaten ditu. Ordezkariok erakunde hauetan, estatuen interesak defendatzen dituzten kudeatzaile gisa ulertuak dira. "Kudeatzaile" hauek interes nazionaleko gaiak sustatu, garatu edo ulertarazteko erabiltzen dira.

i) *2007-2013 eperako marko finantzarioari babesa*

2005ko abenduak 15 eta 16ko Europako Kontseiluan, estatu kideek 2007-2013 eperako marko finantzarioa erabaki zuten. Aurreikuspen finantzarioak EBeko aurrekontuak planifikatzeko mekanismoa dira, EBeko aurrekontuaren goia, gehienezko gastuak eta hauen estatu arteko banaketa determinatzen dituenak, hain zuzen.

Dagokigun eperako, EBko estatu kideen BPGaren %1,045ean egokitu dute zifra, hau da, 862,3 mila milioi Euro. Transferentzia publikoak bateratasun ekonomikoa bilatzen dute eskualde pobre eta aberatsen artean. Laguntza ekonomikoek sail askotan dute eragina; nekazaritzan, ekintza teknologikoa edo enpresa arlokoa, hezkuntza, osasuna, azpiegiturak, ingurugiroa, etab. Estatu kide guztiek elkarte akordio batzuk sinatu



dituzte, zeinetan euren produkzio egiturak modernizatzeko proiektuak garatzeko diru sarrera kopuru bat hitzartu den. Ondorioz, diru kopuru franko bideratu da estatuetara aipatutako alorretan inbertitzeko.

Gehitu beharreko beste onura ekonomiko eta finantzarioak

- a) Inflazioak igotzea eragozten du
- b) Euroa nazioarteko merkataritzaren moneta globala bilakatu daiteke
- c) Barne inbertsio handiagoa
- d) Truke tipoa desorekarekin amaitzea
- e) Prezioen gardentasuna
- F) Transakzio kostuak

Elementu guztiok praktika ekonomiko gardenagoak erabiltzera bultzatu dute.

Herri txikiak Europar Batasunean

Gales/Cymru independentea EBan

Azalera: 20.900 Km²

Biztanleria: 3.000.000 pertsona

BPG: 2000 urtetik 2006ra bitarteko epean Galesi 1, 571 milioi libera eman zitzaizkion EBeko funtsetatik, garapen ekonomiko jasagarria sustatzeko. Hala, Galeseko ekonomia eraldatu egin zen proiektu jasagarri eta berriztatzailea suspertzeko finantziarioa izanik. Zenbateko hau Erresuma Batuak jaso beharreko transferentzietatik kendua izan zen.

2007-2013 funts estrukturala eta Kohesio funtsa

2005eko abenduko Europar Kontseiluak Funts estrukturalentzako eta Kohesio funtsetarako 308 mila milioi euroko aurrekontua onartu zituen 2007-2013 arteko epe fiskalerako. Erabakiaren ondorioz, Erresuma Batuak 10.6 mila milioi Euro jasotzen jarraituko du sei urte hauetan.

Westminsterreko gobernuak erabaki beharko du kopuru hau non eta nola inbertitu. Nolanahi ere, EBak, eskualdeetako erakundeak sustatu nahi ditu erabaki hauek hartzerakoan euren interesen alde egin dezaten. Gales edo Euskadi independente batek, Batzordearekin batera, noski, lirateke Bruselatik jasotako dirua kudeatu eta betearazteko kompetentzia izango luketen bakarrak.



Maltako errepublika

Biztanleria: 403.532 pertsona (2008ko uztaila)

Independentzia: 1964ko Irailaren 21ean

BPG: 22.900 dolare amerikar (2007an)

Langabezia tasa: %6,3 (2007an)

Inflazio tasa: %0,7 (2007an)

Maltarentzat, EBan sartzea aukera ezin hobea zen bere "uhartetasuna" beste europar herri batzuekin kooperazio lanak garatzeko. Maltaren helburuak, egonkortasuna, oparotasuna, segurtasuna eta (azkenean), beste nazio europarren klub politiko eta ekonomiko berean sartzea izan dira. Mediterranean dimentsioa garrantzi handikoa da estatu kide bilakatutako uharte honentzat; EBa euren eragina zabaltzeko tresna egokia da, marko politiko egonkorragoan aingura botatzeaz gaindi, noski. Herritxo honek onura asko atera zituen mediterraneoko bi aldeetako estatuen eztabaidatik (Bartzelonako Adierazpena).

Bartzelonako Adierazpena, 1995

Bartzelonako Adierazpenaren zeregin nagusia elkartzeko eta kooperazio puntuak aurkitzea da mediterranean herri guztien artean. *Mare nostrum*aren inguruan dauden 12 kidean arteko harremanak uztartu zituen adierazpen honek, Malta barne. Euro-Med elkarteak 3 lan talde antolatu zituen bere helburua lortzeko: lehena, segurtasun eta politikari buruzko eztabaida, bigarrena merkataritza, ekonomia eta finantza kooperazioa, eta azkena, giza, gizarte eta kultura arloetara zuzendutako elkartzeko akordioen eraketa.

Malta EBan

2000ko abenduan, Nizako goi-bileran, Maltaren ordezkariaren inguruan zera onartu zen: Europar Batzordean Komisario bat izango zuela, Ministroen Kontseiluan ministro bat, Europar Parlamentuan 5 parlamentari, Europako Erkidegoetako Auzitegian epaile bat, Lehen Auzialdiko Europako Auzitegian epaile bat, Kontuen Auzitegian kide bat, Batzorde Ekonomiko eta Sozialean 5 kide, eta Eskualdetako Batzordean beste hainbeste.

EBko kide izateko ibilitako pauso politikoak

Maltak 1970ean asoziazio akordioa sinatu zuen orduko EEEdarekin, eta modu honetan hainbat akordio finantzario eta komertzialak sinatu ziren. Atxikimenduari



buruzko negoziaketak 2000. urtean hasi ziren, eta 2003an amaitu. Horrela, 2004ko maiatzean, Malta EBena sartu zen, eta 2008tik aurrera "euro guneko" kidea da ere.

Atxikimenduaren inguruko datuak:

Eremu politikoan, hainbat Atxikimendu Itunari hainbat klausula gehitu zitzaizkion.

Nekazaritza: Gutxien mesedetutako zonalde izendatu zuten Malta, eta beraz, EBak finantziazio gehigarri bat bideratu zuen irlara, bost urtetan zehar eremu batzuk babesteko helburuarekin. Hala, maltar nekazariak 2014 urtera arte finantziario zuzena jasoko dute. Baina ez hori bakarrik, klausula honek hurrengo hau ere barneratzen du; BEZik ez ordaintzea uran, Gozoko ferrya, garraio publiko eta internazionala, abortua, neutraltasuna, pertsonen zirkulazio askea, Maltako hiritar diren langileen eskubideen babesa, kapitalen zirkulazio askea, energia, garraioa, justizia eta Barne gaietarako alo politikoa, Vatikanorekin akordioak guraso eta ezkontza kasuetarako, ingurugiroa, babes gunea 25 miletara zabaltzea arrantzarako, eskualde politikarako, Gozoko uhartea eskualde banatutzat hartua izatea, laguntza finantzario eta fiskalak enpresa txikientzako 2011ra arte, ontzitegien "errestrukturaketa plana".... Itunean Gozoko Uharteko eskualdearentzako hitzarmen berezia gehitu zitzaion. Gozok, atxikimenduaren unean, Maltaren gutxi gora beherako %72ko errenta zuen, eta itunean, hau agertzen zuen neutraltasun klausula ezarri zen.

Akordioen inplikazio instituzional printzipalak, marko baten barnea ulertu behar dira; eta marko hori kontinente guztira, onura eta oreka hedatu nahi duen klub paneuropeo batean sartzen den herri batena da. Aipatu beharra dago Malta, hemen aztertzen diren beste herri batzuk ez bezala, askea zen momentutik sistema demokratikoz arautu zela. Momentu hauetan, Maltak Ebeko Kontseiluaren erabakia itxoiten ari da, gehiegizko defizita baitago irlan, 2004tik (atxikimendutik) gutxitzen doana. 2007-2013 eperako Maltak 8.400 milioi bat jasoko ditu. EBak bere merkataritza kide nagusia izaten jarraitzen du nola inportazioan hala esportazioan ere.

Esloveniako errepublika

Biztanleria: 2.010.000 pertsona
Independentzia: 1991ko ekainaren 25a
BPG: 27.200 dolare amerikar.
Langabezia tasa: %4,8 (2007)
Inflazio tasa: % 3,6 (2007)

Arrakasta historia gogoangarria



Eslovenia, atxikimenduaren momentuan, 2004an, urte hartan eman zen zabalkuntzan sartu ziren estatuetatik euroa ezartzeko hautagai nagusia zen, bertako egoera ekonomikoak hala erakusten zuenez. 2004ko martxoan, funtsen hartzaile izatetik, Nazioarteko Moneta Funtsean (NMF) emaila izatera igaro zen lehen estatu bilakatu zen.

Independentzia lortu zuen momentu beretik, Esloveniako Kanpo politikaren helburu garrantzitsuena EBaren barne egote zen, eta ikuspegi hau parlamentuko alderdi guztiek partekatzen zuten gainera. Gaiak kontsensu zabala izan zuen, eta hala erakusten zuten iritzi inkestek, zeintzuk sostengu publiko izugarria erakusten zuten. 2003ko martxoak 13ko atxikimenduaren inguruko referendumak hurrengo galdera luzatzen zuen: *Ados al zaude Esloveniako errepublika Europar batasuneko kide bilakatzearekin?* Hautesleen %89.64ak BAI esan zuen. 2007-2013 ikuspegi finantzarioei buruzko negoziaketan itxiera epean, ordezkaritza esloveniarrak asanblada nazionalaren pean jardun zuen, zeinek Europar Kontseiluaren aurrean, 2004-2006 epean egokitu zitzaion EBko aurrekontuaren diru kopurua bikoiztea aldarrikatu zuen. Oso-osorik jaso zuen dirua.

Kohesio politika arautzen duen akordioa eta Europako Erkidegoaren zuzentarauak jarraituz, Esloveniari 2007-2013rako 4.500 milioi Euro egotzi zaizkio, hau da, zergaduru moduan dituen obligazioak ezartzen dutena baino 2.000 milioi gehiago. Aurrekontu superabit honekin, eta ongi eztabaidatutako atxikimendu negoziaketan lortutako akordioekin, Esloveniak 2004-2006 epean uste baino egoera hobea bizi izan zuen (espero zuenaren bikoitza). Esloveniak akordio hauek positiboki baloratu zituen, ezin beste modu batera izan. Transferentzia hauei esker, azpiegitura, zientzia, teknologia edo hezkuntza proiektuak aurrera eraman ahal izan zituen, bide batez EBeko laguntza berriak bermatuz. Herri honek jakintza eta ekintzetan moldaerraztasun eta profesionaltasun handia erakutsi du EBak eskaintzen dituen laguntzen paketeari etekina ateratzeko orduan.

Esloveniako eragiketa-programetara zuzendu diren EBeko 2007-2013 Funtsen osotasunetik, kohesio proiektutarako 4.200 milioi Euro jaso zituen, eta landa garapenerako, berriz 900 milioi. Aurreko epean, 2004-2006, 4.200 milioiak funts ezberdinetarako bideratu ziren, gehien bat landa garapen proiektuak, enpresa sektorea, berrikuntza, giza baliabideak, garraioa eta ingurumena. Perspektiba finantzario berriak kohesio eta landa garapen politikak bereiztea gauzatu du, landa garapenerako oraintsu sortu den funtsa erabiliz. Modu honetan, Esloveniak 900 milioi Euro jasoko ditu nekazal eta baso sektoreetan lehiakortasuna areagotzeko, landa gunek eta ingurugiroa hobetzeko eta, azken finean, landa ekonomia abartzeko.



Esloveniak beste funts batzuk ere jasoko ditu, adibidez, Ikerkuntzarako 7. esparru programa, zeien bitartez gastu publiko eta inbertsioak ikuskatzeko proiektu eta programak diseinatzen diren. 2007-2013 eperako kohesio programak arautzeko egin ziren negoziaketetan, Esloveniak eta beste estatu kide berri batzuk, funts estrukturalen proiektuetarako kofinantzaketa maila gorena lortu zuten; kasu askotan proiektuaren balioaren % 85. 2004 eta 2006 artean, Eslovenia Erkidegoko aurrekontuen funtsen onuradun garbia izan da, ordaindu duena baino 392,7 milioi gehiago jasoz.

Epe horretan, transferentzia totala 1.230 milioi Eurokoa izan zuen. Bertatik herena nekazaritzara zuzendu zuen, bosten bat politika estrukturalera (EBeko eskualde ezberdinen arteko errentaren ezberdintasuna gutxitzera zuzentzen diren funts estrukturalak, eta Kohesio Funtsa, kasu hauetan garraio eta ingurugiro azpiegiturak garatzeko proiektuak), seiren bat barne politikara (Schengen mugak ezartzera, Ikerkuntza eta Garapena, hezkuntza, kultura, lana, osasuna, etab.), laurdena tipo bakarreko itzultze inpositiboak (kapital fluxuak indartu, aurrekontua orekatu), eta beste seiren bat atxikimenduaren aurreko garaiko laguntzengandik jaso zuena.

2007ko aurrekontu ekintza aldirako, Esloveniak EBko aurrekontu orokorretik 582,1 milioi Euro jasotzea espero du, berak 317,1 eman beharko dituelarik. Esan genezake hortaz, benetako arrakasta historia bizi izan duela Esloveniak EBaren esparruan. Oraingo epe finantzarioan (2007-2013), onuradun gardia izaten jarraituko du gainera, hau da ematen duena baino gehiago jasoko du. zehatz-mehatz, 4.205.304.956 Euro. Gainera, azken zabalkundeaz geroztik sartu diren herri berrietatik, EBko buruzagitza bere esku izan duen lehen estatua da.

Zipreko errepublika

Biztanleria: 792.000 pertsona (2008ko uztaila.)

Independentzia: 1960ko abuztuak 16an

BPG: 27.400 dolare amerikar (2007)

Inflazio tasa: %2,2 (2007)

Langabezia tasa: %3,9 (2007)

N.B: Zipre-turkiar ekonomiak hegoaldeko *Per Capita* Errentaren %30a itxuratzen du, 11.800\$, eta langabezia tasa % 10eko da.

Segurtasun eta Politika eraginak

Zipreren atxikimendua EBra erdizka gauzatu den helburua izan da, izan ere uharteko hego partea (turkiarra) atxikimendutik kanpo geratu zen, eta beraz, ezin izan du gainontzeko zipretarrek dituzten abantailez gozatu. Nolanahi ere, jende askok uste du etorkizun hurbilean EBak paper garrantzitsua joka dezakeela eztabaida eraikitzaile



baten oinarriak jartzen, uhartearen birbateratzean eta berradizkidetzan. Badirudi haize politiko berriek helburu hau lortzearen alde jotzen dutela. Ziur-ziurra ez baldin bada ere, Zipreren batasuna Turkiaren atxikimenduarekin batera etor daiteke. EBak bake aterkia eskaintzen dio Ekialde ertainetik (planetako zonalde bero eta odoltsuenetakoa) geografikoki hain hurbil dagoen herri honi. Aterkiak oreka politikoa eta segurtasuna ere eskaintzen du, oraindik ere hain bananduak dauden bi alde hauen artean.

Zipreko Errepublikak Europar Erkidegoari 1990eko uztailaren 4an luzatutako atxikimendu eskaerak, Zipreko gatazka politikoari buruzko Erkidegoaren interesa nolabait piztea lortu zuen. Hegoaldeko Turkia azken aldiotan proiektu anitz garatzeko diru laguntzak jasotzen ari da. EBak epe motz edo ertainean, gatazka politikoari amaiera eman nahi dio. Atxikimendua, beraz aitzakia ona izan daiteke behin betikoz aberri osoa batzeko berradizkidetzaren marko orekatuan.

EBaren parte izatearen onura ekonomikoak

EBA Zipreren merkatal kide nagusia da. 2004an, EBko inportazioak, guztizkoaren %54a izan ziren, eta EBra zuzendutako esportazioak berriz, %55a. Inflazioaren euspenak, berriz, ekonomia produktiboaren liberalizazioa eta industriaren gorakada ekarri du. Langabezia tasak baxua izaten jarraitu du, 2002tik zertxobait igo duen arren. Zipreko merkatu laborala malgua dela esan genezake, eta honek kanpoko langileria bertaratzea ekarri du, zeintzuk denboraldi baterako bada ere, lana erraz aurkitzen duten. Ondorioz, soldatak igo egin dira, inflazio-tentsio handirik sortu gabe.

Nolanahi ere, Ziprek gogor jardun beharko du epe ertainera begira jarri dituen defizit publikoaren eta aurrekontu-orekaren helburuak betetzeko, Oreka eta Hazkunde hitzarmenean zehaztuak daudena, hain zuzen. Berrikuntza estrukturalak alde batetik krisiari begira, ekonomia indartuko dute, eta bestetik zabalkuntza ekonomikorako baldintza hobekak, soldaten igotze jasangarria eta lana sustatuko dituzte. Zipreren bateratzeak erronka estruktural eta fiskal berriak sor ditzake, egiten ari diren konponketa ekonomikoa eta fiskal zehatzek hartzen duten bidearen arabera. Zipreren moneta politikaren helburu nagusia prezioak egonkortzea da, eta Banku Zentrala horretan dabil 2002az geroztik (2002ko legea).

Gaur egun, gehiegizko defizit publikoa izanda ere, Zipre ez dago Kontseiluaren erabakiaren zain. 2006 urtean, administrazio publiko guztiek BPGaren %1,5eko defizita batu zuten, hau da, erreferentzia balorea den %3aren azpitik jarri zen dagoeneko. 2007an defizita %1,4ra jaistea lortu zen, metatutako zor publikoa %61,5era heltzen zelarik, Oreka hitzarmenak xedatzen duen %60tik gertu. Hurrengo ekitaldi ekonomikoan, jarritako helburuekin bat egitea lortu zuen azkenean.



Teknikoki, 2004ko maiatzaren lehen irla osoa EBaren barne sartu zen, nahiz eta Europar araudi bateratua soilik uharteko alde grekora aplikatzen den. Lurraldearen gainontzeko zatia oraingoz bere horretan utziz, turkiarren menpe baitago. NBE edo EB bera bezalako erakundeek behin eta berriro bi komunitateei auziarekin behingoz bukatzeko eta irlaren bateratze negoziaketekin jarraitzeko eskaera luzatu diete.

Euroaren onurak

2008tik, Ziprek moneta bakarra darabil, euroa. Euroak Zipreko oreka makroekonomikoa indartu beharko luke, interes-tipo baxuak dituen inflazio baxua ziurtatuz. EBZak aurrebaldintza beharrezkotzat dituenak epe luzera ondasun ekonomikoa lortu ahal izateko. Euroak hiritarrentzako prezioen egonkortasuna bermatzen du, eta enpresa-jardunarentzako aukera gehiago eskaini. Euro gunean sartzeak ekonomia globalean merkatal aukera berriak eskaintzen ditu, kanpo inbertsioa erakartzeaz gaindi.

Letoniako errepublika

Biztanleria: 2.245.000 (2008ko uztaila)

Independentzia: 1991ko abuztuak 21

BPG: 17.400 dolare amerikar (de 2007)

Inflazio tasa: %10,1 (2007)

Langabezia tasa: %5,7(2007)

Letoniar eliteak europar familiarekin bate egiteko hartutako erabakiak inplikazio politiko, ekonomiko eta segurtasunekoak ditu bere baitan. Letoniarrentzat ongizate ekonomikoa eta egonkortasun politikoa elementu garrantzitsuak ziren, herri askea izatearekin gozatzea batera, Errusiak -ezin zehetasun hau ahantz- zerikusirik ez duen erakunde handi baten testuinguruaren baitan. Letoniarentzat EB eta NATOaren barne egotea bizilagun boteretsu eta arestian ugazaba izandakoaren influentzia eta hegemonia jazartzeko bideetako bat da.

Neurri ekonomiko eta finantzarioen multzoa

Hurrengo 7 urtetarako Letoniak jasoko duen diru kopurua 4.600 milioi eurokoa izango da. 3.500 Euro Kohesioko funtserako eta funts estrukturalerako, eta 1.100 milioi Euro nekazaritza eta landa garapenerako. Pakete finantzario honez gain, EBeko programa bateratuetatik ere diru laguntzak jaso ditzake, hartuko duen kopurua proiektu zehatzaren kokapena, planifikazioa eta garapenaren arabera izanik. Programa horien



adibide izan daitezke 7. Esparru programa (FP7), Gazteria Ekintzan, Kultura 2007, edo MEDIA 2007, besteak beste.

2007-2013 finantza funtsen asignazioa instituzioen arteko akordio baten ondorioz egiten da, esan nahi da, europar Batzordea, Kontseilua eta Parlamentuaren artean. Akordioaren helburua aurrekontu-diziplina bat ezartzean datza, EBko instituzioen kooperazioa eta funtsen gardentasuna garatzeaz gaindi, eta beraz, finantzakudeaketa egokia lortzea espero da. Akordio berriak 2006ko ekainak 14an sinatua izan zen, eta 2007ko urtarrilak 1az geroztik indarrean dago.

2005eko abenduko Europar Kontseiluak hartutako ondorioekin bat eginez, EBko estatu kideek Batzordeari EBaren gastu eta baliabideen zenbatekoa zehazten duen aurrekontu ikerketa doia eskatzen diote, Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) edo "Txeke Britainiarra" barne. Batzordeak Kontseilua jakinaren gainean jarri beharko du 2008-2009ko kurtso politikoan. Batzordearen proposamenetan oinarrituz gero, EBko estatu kideak dira Batasuneko aurrekontu globalaren inguruko aldaketen inguruko eztabaida hasi behar dutenak.

Estoniako errepublika

Biztanleria: 1.310.000 (2008ko uztaila)

Independentzia: 1991ko abuztuak 20a

BPG: 21.100 dolare amerikar (2007)

Inflazio tasa: % 6,6 (2007)

Langabezia tasa: % 4,7 (2007)

1991ean independentzia lortu zuenetik, Estoniako politikak sobietar garaitik mendebaldeko bizilagunekin hain ahulduak geratu ziren zituen lotura ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalak berreskuratzeari ekin zion. Estonia eta EBaren arteko atxikimendu negoziaketan 1998ko martxoaren 31an jarri ziren martxan. Estoniarentzat, EBan barne sartzeak, bere interes nazional europarren interesekin bateratzeko aukera suposatzen zuen, eta herri honentzat, ez zen beste bide alternatiborik geratzen EBan sartzea baino, bere interesak defendatu nahi bazituen eta estatu moduan garatu behar bazuen.

Estoniaren atxikimendu eskaera, faktore gako anitzek babestu zuten:

- Estoniak EBan Zuzenbide Estatua, arau argiak dituen merkatu ekonomia askea, gizabanakoaren eskubideak babestu eta sustatzeko instrumentu perfektua ikusi zuen -



beste estatu baltiko guztiek moduan-, sistema demokratikoarekiko konpromiso garbia zuena.

- EBaren parte izateak Estoniaren garapen ekonomikoari bultzada itzela eman dio, hazkunde ekonomikoari ateak zabalduz, eta orokorrean, biztanleriaren ongizate maila hobetuz.
- Estoniaren garapen ekonomiko azkarrak Batasuneko barne merkatuko lehiakortasunari aurre egiteko duen gaitasun harrigarriarekin zerikusi zuzena dauka. Aberri honek jada atxikimendu maila garrantzitsua lortu du Batasunean, eta zenbait alorretan "bikaina" dela ere esan genezake, informatika kasu. Giza dimentsioa -hemen EBak influentzia handia izan du- geroz eta garrantzitsuagoa da Estonian, zeinek garrantzizko alor politikoetan (lana, lan baldintzak, lanbide-heziketa) esfortzuak areagotu dituen, letoniar gizarteko kide guztien aukera berdintasuna lortu asmoz.
- Estoniak garrantzi berezia eman dien Justizia eta Barne sailei, eta batez ere delitugintza antolatua, droga trafikoa, legez kanpoko immigrazioa eta lana, edo diru garbiketei, eta baita nazioarteko informazio trukeei ere dagokionez. Estonia prest dago alor hauetan kolaborazioa eskaintzeko, eta paper aktiboa jokatzeko ere.

2003ko Ekonomia Mundu Memoriak, -Fraser eta Cato institutuek plazaratutako ikerketa-, dio urte horretan estatu komunista izandakoen artetik, ekonomiarik garatuena zeukana Estonia zela, eta mundu maila 16. postuan zegoena, EBeko hainbat kide garrantzitsu eta zaharren gaineratik.

EBaren ipar dimentsioa

EBaren baitan, normala da amankomuneko interes edo arazoak dituzten estatuak batzea kooperazio indartu bat eragiteko. Geografiak XXI mendeko hasieran oraindik ere garrantzia duenez, egun EBaren ipar dimentsioaz hitz egin dezakegu. Estoniak EBeko iparraldeko beste herrieekin duen elkartasun geografikoa, interdependentzia ekonomikoa eta kultur ondarea aintzat hartu eta baloratzen du, baita Batasunetik at dauden beste zenbaitzuekin, Islandia edo Errusia kasu. Herri multzo honek "auzokidetasun" onean oinarrituta elkarlana bultzatzeko konpromisoa hartu dute, berdintasun, erantzukizun eta gardentasun baldintzetan, erronka komunei aurre egiteko eta elkarbanatutako onurak lortzeko, mundu gunerik dinamiko eta garatuenetako batean, hain zuzen.

Azkenik, puntu garrantzitsua; segurtasun inplikazioak

Letonia edo Lituaniaren kasuen antzera, Estoniarentzat Europako eta Atlantikoko klubaren bazkide izateak, oraindik zeharo desagertu ez diren errusiar irrika inperialista geldiarazteko baliabide boteretsua da, izan ere, badirudi azken denboraldian



Errusia den estatu handiak bere hegemonia modu berriztatu eta modernoagoekin zabaldu bahi duela berriz ere.

2007-2013 finantza eperako, Estoniak 3.500 milioi euro jasoko dituela espero da.

Luxenburgoko Dukerri Handia

Biztanleria: 486.000 (2008ko uztaila)

Independentzia: 1839. urtean

BPG: 80.500 dolare amerikar (2007)

Inflazio tasa: %2,3 (2007)

Langabezia tasa: %4,4 (2007)

Hemen aztertu ditugun estatu kide txiki guztietatik, Luxenburgok aparteko aipua merezi du, izan ere, herri zinez aberatsa da, agiri demokratiko ezin garbiak agertzen dituen, oreka soziala eta barealdi epez luzeaz gozaten duena. Luxenburgorena, bere pisu demografikoaren gaindi (askoz gorago) dagoen betebeharrak politikoko eta instituzionala modu ezin hobean bete duen herri baten eredu argiena da. Inori kalte egin ezin diezaiokeen "herritxo" moduan hartu izatea onura ugari eta gizenak ekarri dizkio.

Bigarren Mundu Gudaren ostean, Luxenburgok bere neutraltasun politikoa alde batera utzi zuen, kooperazioan oinarritutako nazioarteko politika ekonomiko eta militar berria martxan jarri. Ondorioz 1948ko urtarrilak leian Herbehereak, Belgika eta Luxenburgoren arteko aduana batasuna indarrean sartu zen, *Benelux* izena hartuz talde berriak. Urte berean Luxenburgok Europako Segurtasuna eta Kooperazio Erakunde (ESKE) sartu zen ere. Akordio ekonomiko, aliantza militarrek egin zioten segida; 1949an NATOren (balizko kanpo erasoaren aurrean segurtasun bermatzen duen erakundea) parte izatea lortu zuen. Honekin guztiarekin, 40. hamarkadaren bukaeran, herri hau guda osteko aliantza ekonomiko eta militar garrantzitsuenen kide da. Luxenburgok kanpo politika berria europar atxikimendu plan hasiberriekin lotu zuen. 1949an Dukerriak Europako Kontseilua eratzen zuen estatutuak sinatu zituen, giza eskubide eta demokrazia errespetaraziko duen erakunde politikoko eta instituzionala. 1950. urtean, "Shuman Adierazpenarekin" batera, Europa politikoranzko lehen pauso handia eman zen.

Luxenburgoko Ikatz eta Altzairuaren Europako Erkidegoko (IAEE) zein Europar Ekonomi Erkidegoko (EEE) kide eratzaileetako bat da (1951-57), bi instituziotan eragin eta botere handia izanez. Bai IAEEak eta EEEak ere, eratu zirenetik Europako integrazio prozesuan sekulako garrantzia izan dute. Dukerriak argi eta garbi ulertu zuen bere etorkizun politikoko onura *entente* franko-alemaniar berria eratzean zetzala, leial



eta iraunkorra, biak barneratzen zituen marko europar batean. Estatu txiki honek, inork baino hobeto egin zuen bien arteko eztabaida zubi lana. Politika aurrerakoi eta egoki horren ondorioak onura asko ekarri dizkio Luxenburgori, eta harrotasunez esan dezake, lana ez baita makala izan.

Politikoki, Luxenburgok maila europarrean inoiz eman izan den "gehiegizko" ordezkartza izan du. Urtetan zehar mikroestatu bakarra izanik Batasunaren barruan, onura instituzional zein politiko franko jaso ditu, zeintzuei zabalkundeak baino lehenago, transferentzia finantzario ugari gehitu diezazkiokegu urte askotan zehar. Gaur egun ere, herri honek nazio-aditu, funtzionario, aholkulari, ... gehien dituen estatua da, bere biztanleria ñimiñoarekin konparatuz gero.

Luxenburgoko hiria Justizia Auzitegia, Lehen Auzialdiko Auzitegia, Kontuen Auzitegia eta Europako Inbertsio-Bankuaren egoitza da, eta baita Europako Parlamentuko Idazkaritza eta Zuzendaritza Nagusiarena, zein Batzordeko hainbat zuzendaritza nagusiarena ere. Ministroen Kontseiluaren hainbat batzar bertan antolatzen dira.

Sinergia positibo guzti hauen batuketak Luxenburgoko garrantzi eta botere handiko pertsonai bilakatu du europar politikaren antzezlanean. Arestian azaldutakoa laburbilduz, esan dezakegu estatu kide txiki honek europar instituzioetan ordezkartza *maximizatzeko* gai izan dela, aberri nortasun eta zehaztasunak galdu gabe (zenbaitzuk, alderantzizko kasua eman dela ziurtatzen dute). Hamar alditan EBeko Kontseiluko buruzagi izan da, eta zazpi bider Kontseiluko presidentziako anfitrioi. Aipatzekoa da dituen baliabide diplomatiko eskasekin ere, Luxenburgok EBa ordezkatu behar izan duenean, jarri zaizkion igurikapen guztiak modu egokian bete dituela. Lorpen gogoratuenen artean, Europako Akta Bakarraren akordioa dago, 1985ean. Gainera, Luxenburgotar bik, lehenago gobernu ministro izandakoak, Europako Batzordeko buruzagi izan dira; Gaston Thorn eta Jacques Santer.